

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

Ebazpena: R1/2017

Espedientea: 33/2015

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 6a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburu eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekide dituenak, honako hau

ERABAKI DU

Arabako Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurka aurkeztutako eskumen-gatazkari buruz, azken horrek 2009, 2010 eta 2011ko ekitaldietan balio erantsiaren gaineko zergaren alorrean eta 2009 eta 2010eko ekitaldietan sozietateen gaineko zergaren alorrean 1. ENTITATEan (IFZ:-----) egindako jarduketei dagokienez. Entitate hori 2. ENTITATEak xurgatu zuen (IFZ:-----) eta ez da existitzen dagoeneko. Arbitraje Batzorde honen aurrean izapidetu da eskaria 33/2015 espedientearekin, eta Gabriel Casado Ollero jaunak egin ditu txostengile-lanak.

I.- AURREKARIAK

1.- 2015eko ekainaren 19ko idazkiaren bidez (erregistroko sarrera-data: ekainaren 22a), Arabako Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendariak (aurrerantzean, AFA) eskumen-gatazka aurkeztu zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren kontra (aurrerantzean, ZAEA), azken horrek 2009, 2010 eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

2011ko ekitaldietako balio erantsiaren gaineko zergaren alorrean eta 2009 eta 2010eko ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren alorrean 1. ENTITATEan egindako jarduketei dagokienez. Entitate hori ez da existitzen dagoeneko, 2011ko abenduaren 31n 2. ENTITATEAK xurgapen bidez bereganatu baitzuen.

Azaltzen dituen aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak oinarri hartuta, AFAk Arbitraje Batzordeari eskatzen dio aurkeztutako gatazka onartu eta ebazteko eta ZAEARI agintzeko «1. ENTITATEAn eta haren ondorengoa den 2. ENTITATEAn egin dituen jarduketak eteteko, 2009 eta 2011 arteko BEZari eta 2009 eta 2010eko sozietateen gaineko zergari dagokienez, eta ZAEAK burututako likidazioak ezeztatzea, zerga eta ekitaldi horiei dagozkienak, likidazioak eragin zituzten egiaztapenak egiteko eskumengabetasunagatik».

2.- Espedienteak honako aurrekari hauek ditu:

- a) 1. ENTITATEAK (aurrerantzean, «1. ENTITATEA» edo «entitatea») Araban du helbide fiskala, eta 2009 eta 2011 arteko ekitaldietako BEZaren aitortpenak (bai eta 2008koa ere) eta 2009 eta 2010eko (eta 2008ko) sozietateen gaineko zergarenak aurkeztu zituen, 7 milioitik gorako bolumena adieraziz ekitaldi guztietan, eta operazioen % 100 Araban egin zirela esanez. Ondorioz, aurkeztutako aitortpenen arabera, ikuskatzeko eskumena Foru Lurralde horretako Administrazioari zegokion.
- b) 2013ko urriaren 15ean, Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziko Ikuskaritzako Eskualdeko Sailaren eskualdeko ikuskatzaile laguntzaileak erabaki zuen egiaztapen mugatuko bi prozedura abiaraztea 1. ENTITATEAn:
 - 2009 eta 2010eko sozietateen gaineko zergari dagokionez, horien irismena «sozietateak 2009an, 2010ean eta 2011n Estatuko Administrazioari zergak ordaintzeko obligazio posiblea zehaztera

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

mugatzen da, Administrazio honen esku dauden datu eta aurrekarien eta prozedura hau egiterakoan lor litezkeen arabera, bai eta, hala badagokio, Estatuko Administrazioaren alde dagokion likidazioa egitera ere, zergapetuak emandako datuekin»; horretarako, entitateari eskatu zizkion «2009 eta 2010eko ekitaldietan Arabako Foru Aldundiaren Ogasunean entregatutako sozietateen gaineko zergaren adierazpenen kopiak».

-2009, 2010 eta 2011ko ekitaldietako BEZari dagokionez, honako hauek eskatuz:

«-Jaulkitako eta jasotako fakturen eta inbertsio-ondasunen erregistro-liburuak, hala badagokio, ahal bada Excel formatuan, 2009, 2010 eta 2011ko ekitaldietakoa.

- Córdobako Palma del Río I eta II eguzki-planta termikoaren eta Reocíneko (Kantabria) biomasa-plantaren kontratuak.

- 2009, 2010 eta 2011. urteetan Arabako Foru Aldundian aurkeztutako balio erantsiaren gaineko zergaren aitortzenen kopiak, hala aldi behinekoak nola urtekoak».

c) 2014ko abuztuaren 8an, entitateak bi idazki aurkeztu zituen AFAn, adieraziz ZAEAREN Euskadiko Ordezkaritza Bereziak egindako informazio-eskarien ondorioz (2013ko urriaren 15ean jakinarazi ziren, lurralde erkidean 2009 eta 2011 arteko ekitaldietan egindako operazioen bolumen posibleari buruzkoa eta 2009ko eta 2010eko sozietateen gaineko zergari buruzkoa), zalantzan zegoela ekitaldi horietan zer lekutan egin zuen entitateak bere operazioen bolumena. Hori dela eta 1. ENTITATEAK AFARI eskatzen zion, ZAEAK planteatzen zuen operazioen kokaleku desberdina zela-eta, beharrezko izapideak egin eta gero, horien kokalekua aztertzeko BEZAREN eta sozietateen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

gaineko zergaren ondoretarako eta, egokia bazen, ZAEARI intsuldatzeko entitateak Arabako Foru Ogasunari ordaindu eta ZAEARI zegozkion zergen kuotak.

d) 2015eko otsailaren 26an entitateak beste idazki bat aurkeztu zuen AFAn, honako honen berri emateko: Euskadiko ZAEAK 2015eko otsailaren 11n adostutako BEZaren behin-behineko hogeita hamasei likidazio-proposamen jakinarazi dizkiola, 2009tik 2011ra bitarteko hileko epeengatik, Estatuko administrazioaren iritziz lurralde erkidean egindako operazioen bolumenaren oinarriaren gainean; entitateak eskatzen du, eskatutako kuotak Arabako Foru Ogasunari ordaindu dizkionez, beharrezko izapideak egiteko egoera gatazkan dauden Administrazioen artean konpontzeko, eta sozietatearen kontra hasitako jarduketak eteteko. Era berean, eskatzen du, beharrezko izapideak egin ondoren, operazioen kokalekua aztertzeko eta, egokia bada, ZAEARI legozkiokoen BEZaren eta sozietateen gaineko zergaren zenbatekoak erregularizatu eta intsuldatzeari ekiteko.

e) 2015eko martxoaren 3an Euskadiko ZAEAREN Erakundearen arteko Harremanen Eskualdeko Sailak Arabako Foru Ogasunaren Tributuen Ikuskapen Zerbitzuari jakinarazi zion operazioen bolumenaren ehuneko egiaztatze eskaera, Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziaren Eskualdeko Ikuskaritza Sailak aurkeztutakoa. Horren bidez, «Kontzertu Ekonomikoa onartzen duen 12/2002 Legearen 4. artikulua babespean (lankidetzaren printzipioa), Arabako Foru Ogasunari eskatzen zaio enpresak adierazitako urteetan [2009an, 2010ean eta 2011n] egindako operazioen bolumena egiaztatzea eta zehaztea zer ehuneko dagokien administrazio desberdinei 2009, 2010 eta 2011ko BEZarengatik eta 2009 eta 2010eko ekitaldietako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

sozietateen gaineko zergarengatik»; hori guztia «tributuen kontrolari eta akta bakarrei buruzko lantaldearen ondorio»en 4. atalaren arabera.

- f) 2015eko martxoaren 16an, ZAEAk 1. ENTITEAri BEZaren behin-behineko likidazioko hogeita hamasei ebazpen jakinarazi zizkion, 2009, 2010 eta 2011ko beste horrenbeste hilabeteko eperi zegozkienak. 2015eko martxoaren 18an 1. ENTITATEAri jakinarazi zitzaizkion 2009 eta 2010eko sozietateen gaineko zergaren behin-behineko likidazio-proposamenak, ZAEAk lurralde erkidean egindakotzat jotzen duen bolumena oinarri hartuta; 2015eko apirilaren 14an jakinarazi zitzaizkion kontzeptu horren eta zergaldi horien behin-behineko likidazioaren ebazpenak. BEZari eta sozietateen gaineko zergari buruzko behin-behineko likidazio horien kontra, entitateak erreklamazio bana aurkeztu zuen Euskadiko auzitegi ekonomiko-administratiboan, 2015eko apirilaren 15ean eta maiatzaren 13an.
- g) 2015eko martxoaren 18ko akordioaren bidez (martxoaren 24an jakinarazia), AFAko Tributuen Ikuskapen Zerbitzuak 1. ENTITATEAri jakinarazi zion 6/2005 Foru Arauaren 130-134. artikuluetan araututako egiaztapen mugatuaren prozeduraren hasiera, Foru Ogasunarekiko obligazioak eta eginbeharrak behar bezala bete zirela egiaztatzeko, 2010 eta 2011ko BEZari eta sozietateen gaineko zergari dagokionez, «egiaztapenean operazioen bolumenaren kalkulua eginez».
- h) 2015eko apirilaren 23an AFAk, Arbitraje Batzordearen araudiaren 13. artikuluan xedatutakoa betetz, ZAEAREN inhibizioa eskatu zuen, 1. ENTITATEAREN eta haren ondorengoa den 2. ENTITATEAREN aurkako jarduketak eten zitzaizkion, 2009tik 2011ra arteko BEZari eta 2009 eta 2010eko sozietateen gaineko zergari dagokionez eta, ondorioz, zerga eta ekitaldi horiei lotuta egindako likidazioak ezeztatu zitzaizkion.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

Garrantzitsua da nabarmentzea AFAk honako hau onartzen duela, hala ZAEAREN inhibizio-eskaeran (2/4 orrialdea) nola gatazkaren planteamenduan bertan (bigarren aurrekaria), entitateak Foru Aldundian 2014ko abuztuaren 8an aurkeztutako idatzian (Cfr; *supra*, c letra): «erantsi dira Euskadiko Enpresa handien Kudeaketa Unitateak abiarazitako egiaztapen mugatuko prozeduraren hasieraren berri emateko bi jakinarazpen, 2009ko, 2010eko eta 2011ko BEZari eta 2009ko eta 2010eko sozietateen gaineko zergari buruzkoak, biak 2013ko urriaren 15ekoak».

- i) ZAEAK 2015eko maiatzaren 21ean erantzun zion AFAk 1. ENTITATEAN burututako likidazioak egiteko ustezko eskumengabetasuna dela eta aurkeztutako inhibizio-eskaerari, honako hau adieraziz: «ZAEAK aipatutako zerga eta ekitaldiei dagozkien behin-behineko likidazioak emateko (...) zergapekoak adierazitako eta aldatutako datuak bakarrik erabili ditu (...) zergapekoak AFARI zuzendutako idazkietan eman zituen horiek, lehen aipatutako zerga eta ekitaldietako autolikidazioak/aitorpenak zuzentzeko eskatuz (...)»; 1. ENTITATEAK ZAEARI entregatutako dokumentazioaren artean daude idazki horiek, 2013ko urriaren 15ean hasitako egiaztapen mugatuko prozeduretan egindako errekerimenduei emandako erantzunean (Cfr; *supra*, b letra).

Inhibizio-eskaeraren erantzunean zera esaten da, halaber: «ZAEAK ez ditu egiaztatu aipatutako zerga eta ekitaldien tributazioaren ehunekoak, zergadunak aldatutakoak» eta «inoiz ez da zalantzan jartzen AFA dela ikuskapen-eskumena duen Zerga Administrazioa, ez eta hark duela lurralde bakoitzean egindako operazioen bolumena egiaztatzeko eskumena duena ere». Halere, uko egiten dio inhibizio-eskaerari, uste duelako «birtualtasuna galdu duela, operazioen bolumenaren egiaztapenaren emaitzen mende dagoen heinean». AFAk egin beharko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

du hori, ZAEAk 2015eko martxoaren 3an tributazioaren ehunekoak egiaztatzeko eskatu baitzion, ZAEAREN eta Euskadiko Foru Aldundien arteko 2006/05/18ko hitzarmenen esparruan (Cfr, *supra*, e letra).

3.- AFAk gatazka azaltzeko egindako idazkian azaltzen duenez:

- a) Honako hau adostu zuten ZAEAk, Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak 2006ko maiatzaren 18ko Hitzarmenetan eta, zehazkiago «tributuen kontrolari eta akta bakarrei buruzko lantaldearen ondorioak» dokumentuaren 4. atalean:

«4. Operazioen bolumena egiaztatzea.

Zergadun jakin baten gaineko ikuskapen-eskumena ez duten administrazioek eskuduna bultzatu dezakete lurralde bakoitzeko eragiketa-bolumena egiaztatzerako. Horretarako, ikuskapen-eskumenik gabeko Administrazioak txostena bidaliko dio eskudunari, zergadunaren inguruan lortutako datuekin, horretarako beharrezkoak diren datuak hartzean datzan jardueraren bidez. Administrazio eskudunak eskatzaileari jakinaraziko dio, bi hileko epean, zergadunaren egiaztapena egiten ari den, egiaztapen hori egingarria den eta zer epetan egitea aurreikusten den».

- b) ZAEAk abiarazitako egiaztapen mugatuko prozedurak (1. ENTITATEAREN 2009 eta 2011 arteko BEZAREN eta 2009 eta 2010eko ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren ingurukoak) eta ekitaldi horiei dagozkien eta jakinarazi diren likidazioak eskumenen muga gainditu dute, ZAEAk ez baitzuen entitate horretan ikuskapena egiteko eskumenik, BEZari eta sozietateen gaineko zergari dagokionez, Kontzertu Ekonomikoaren 29.Sei eta 19.Bat artikuluen arabera.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

AFAk dioenez, «ZAEAk entitateak lurralde erkidean operazioak egin zituela pentsatzeko zantzuak bazituen eta, ondorioz, adierazitako operazioen bolumena egokia ez bazen, Arabako Foru Aldundiari eskatu behar zion operazioen bolumenaren ehunekoak egiaztatzeko, administrazio horrek baitu horretarako eskumena, printzipioz. Edonola ere, ez zuen egiaztapen-prozedura abiarazi behar, 2013ko urrian egin zuen bezala, eta ez zuen likidaziorik egin behar egoera erregularizatzeko asmoz. Izatez, geroago, 2015eko martxoaren 3an, ZAEAk eskatu du, 2006ko maiatzaren 18ko hitzarmenak oinarri harturik, egiaztapen mugatuen xede izan diren zerga eta ekitaldien operazioen bolumena eta likidazio-proposamenak egiaztatzeko» (Bigarren aurrekaria).

- c) «1. ENTITATEAri (...) egindako likidazioak (...) ZAEAk 2013ko urriaren 15ean hasitako egiaztapen mugatuen ondorio dira. Alabaina, ZAEAk ez du horretarako eskumenik, enpresak aurkeztutako adierazpenen arabera, eta hortaz ezeztatu egin behar dira (...) horren kalterik gabe, AFA egiten ari den operazioen bolumenaren ehunekoak egiaztatzeko jarduketan ondoren ebazten bada lurralde bakoitzeko operazioen bolumenaren ehunekoak adierazitakoen desberdinak direla, dagozkion intsuldaketak egingo dizkio AFAk ZAEari» (hirugarren aurrekaria).
- d) Azken batean, AFAk uste du 1. ENTITATEAren ikuskapena egiteko eskumena duela, entitate horrek hasiera batean adierazitako datuen arabera, aipatutako zerga eta ekitaldiei dagokienez (...), hori dela eta, ZAEAk hasitako egiaztapen-prozedurak, horien likidazioak barne, erakunde horrek dituen eskumenak gainditzea da».
- e) AFAk Arbitraje Batzordeari eskatzen dio aurkeztutako gatazka onartu eta ebazteko eta ZAEari agintzeko «1. ENTITATEAn egin dituen jarduketak eteteko, 2009 eta 2011 arteko BEZari eta 2009 eta 2010eko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

sozietateen gaineko zergari dagokienez, eta ZAEAk burututako likidazioak ezeztatzea, zerga eta ekitaldi horiei dagozkienak, likidazioak eragin zituzten egiaztapenak egiteko eskumengabetasunagatik».

4.- Arbitraje Batzordearen komunikazio bana aurkeztu zituen Euskadiko Auzitegi ekonomiko-administratiboko idazkariak 2015eko abenduaren 21ean, jakinaraziz eten egin zirela 2. ENTITATEAk aurkeztutako 48/00158/2015 erreklamazioa, sozietateen gaineko zergari buruzkoa, bai eta 48/00137/2015 eta metatutako 48/138 eta 139/2015 erreklamazioak, balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoak, Arbitraje Batzordeak AFAk planteatutako gatazka ebatzi arte, Kontzertu Ekonomikoaren 66.Bi artikuluan xedatutakoa betez.

5.- AFAko Ogasuneko zuzendariak, 2016ko uztailaren 29ko idazkiaren bidez, Arbitraje Batzordeko presidenteari jakinarazi zion ZAEAk 2015eko martxoaren 3an formulatutako operazioen bolumenaren ehunekoa egiaztatzeko eskaeraren ondorio bezala, AFAko Tributuen Ikuskapen Zerbitzuak txosten bat eman zuela 2016ko martxoaren 15ean, eta ZAEARI bidali zitzaiola maiatzaren 2an:

«2015eko martxoaren 3an, ZAEAk eskatu zuen 1. ENTITATEAREN (IFZ -----) operazioen ehunekoa egiaztatzeko, 2009 eta 2011 arteko BEZAREN ekitaldiei eta 2010eko sozietateen gaineko zergari dagokionez.

Enpresak aurkeztu dituen aitopenetan, eragiketen % 100 Araban egin zirela esan du, lurralde horretan baitzuen egoitza soziala ekitaldi horietan.

Ekitaldi horietako eta 2008ko operazioak ikusita, guztietan operazioak zazpi milioi eurotik gorakoak izan dira, eta lurralde erkidean izan dira horien % 90 baino gehiago.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

Hortaz, 2009tik aurrera, ZAEAr dagokio ikuskatzeko eskumena, hala BEZ eta sozietateen gaineko zergaren bolumena zehazteko nola beste edozein gai egiaztatzeko, bai eta araudi erkidea aplikatzeko ere.

Ondorioz, zuei dagokizue beharrezko egiaztapen-jarduerak abiaraztea, lurralde bakoitzari bolumenaren zer zati dagokion zehazteko.

Zuen emaitzen zain geratzen gara, beraz, zergadunaren zerga-egoera erregularizatu ahal izateko».

Txosten hori oinarri hartuta, AFAk ondorioztatu du «Estatuko Administrazioak duela eskumena 1. ENTITATEak lurralde bakoitzean egin duen operazioen bolumenaren ehunekoa egiaztatzeko. Eta, ondorioz, egiaztapen horren emaitzaren arabera erregularizatuko du ukitutako bi administrazioen, hau da, Estatuaren eta Arabako lurralde historikoaren arteko egoera, preskribatu gabeko tributu eta epealdiei dagokienez».

6.- Aurrekoarekin bat etorritik, AFAko Ogasuneko zuzendariak «kasu honetako inguruabarrak ikusita (...) erabaki du atzera egitea 2015eko ekainaren 22an aurkeztutako gatazkan (2009, 2010 eta 2011ko balio erantsiaren zergari eta 2009 eta 2010eko sozietateen gaineko zergari buruz Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 1. ENTITATEan egindako jarduketei buruzkoa)».

7.- 2016ko azaroaren 4ko bilkuran, Arbitraje Batzordeak gatazka izapidetzea onartu du, haren sustatzailea den foru-aldundiak atzera egiteko aurkeztutako dokumentuaren berri izan eta gero eta, Kontzertu Ekonomikoaren 66.Bi artikuluan eta 30/1992 Legearen 34. eta 91.2 artikuluetan (egungo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 8. eta 94.4 artikulua) xedatutakoa betez, Arbitraje Batzordearen 8. artikuluan egindako igorpenari dagokionez, erabaki du 33/2015

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

espedientearen berri ematea 1. ENTITATEAri, hilabeteko epean prozeduran bertaratu dadin eta egokitzat jotzen dituen alegazio guztiak aurkez ditzan. Jakinarazpen bera egin zitzaien beste bi administrazio interesdunei ere, epe berean zegozkien alegazioak formulatu zitzaten.

8.- 1. ENTITATEak idazki bat aurkeztu zuen 2016ko abenduaren 5ean. Bertan, gertakariak berraztertzen ditu, aurrekari bezala aurkeztuz, eta aipatu egiten ditu, beste batzuen artean, ZAEAk entitatearen aurrean gauzatutako jarduketak eta 2013ko urriaren 30ean eta 2014ko urtarrilaren 14an, martxoaren 5ean eta irailaren 3an egindako diligentziak (lehen alegazioa). Ondoren, zuzenbideko oinarri bezala (bigarren alegazioa) azaltzen ditu administrazioek erabilitako argudioak, honako hau adieraziz: «espediente hau, funtsean, administrazioen arteko auzi bat da, haien eskumenei eta haien arteko funts-igorpenei buruzkoa. Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeari dagokio gatazka ebaztea (...) eta ebazpenak, edonola ere, administrazioen arteko funtsen intsuldaketa baino ez du ekarriko BEZari eta sozietateen gaineko zergaren zati bati dagokienez, erreklamatazilearengan inolako eraginik izan gabe». Azkenik, onartzen duenez, «sozietateen gaineko zergaren zati bati dagokionez, araudi-aldaketaren eraginez, sozietateak ordaindu beharreko diferentzia bat egongo litzateke (...)».

Entitatearen ustez, «Arabako Foru Ogasunak Arbitraje batzordearen aurrean Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurka hasitako prozedura honetan erabakiko da ZAEAk sozietate honen aurrean egindako jarduketak egokiak diren edo ez, horren ondorioz ekitaldiren bat preskribatu den edo ez eta, ondorioz, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak zergadunari igorritako likidazioak egokiak diren edo ez. Aldundiak atzera egitea eta, hala badagokio, Arbitraje Batzordeak espedientea artxibatzea -gaineratzen du-, hasierako egoerara garamatza berriz ere, egoera eskuarki irregular batean agertutako alderdi honen kontra igorritako likidazio batzuekin»; ondorioz, 1. ENTITATEak uste du «espediente hau ez dago amaituta; aitzitik, BEZ eta sozietateen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

gaineko zergaren likidazio batzuk daude, ZAEAk sozietate honen kontra igorritakoak, bere garaian Arabako Foru Aldundiaren aurrean ordaindu ziren zergengatik» (aurretiazko alegazioa).

Honako hau dio ondoren 1. ENTITATEAK: «ZAEAk egindako egiaztapen eta ikuskapenak eta igorritako likidazioak gauzatzeko eskumenik ezak egindako guztiaren deuseztasuna ekar lezake, bai eta likidatu nahi diren BEZ eta sozietateen gaineko zergaren epealdi batzuen preskripzio posiblea, preskripzio-epea kalkulatzeko erreferentzia bezala 2015eko martxoaren 3a hartuz; izan ere, orduan abiarazi zuen ZAEAk prozesua, operazioen bolumenaren berrikuspena Arabako Foru Ogasunari jakinaraziz, bi administrazio horien arteko jarduketetarako adostutako hitzarmenaren arabera». Eta, ohar horren ondoren, adierazten du: «Arabako Foru Aldundiaren argudioek (...) Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen ebazpen batzuetan lukete oinarria», eta ondorengo paragrafoetan hainbat ebazpenetan (15/2012 ebazpena, azaroaren 29koa; 13/2013 ebazpena, ekainaren 28koa; eta 17/2013 ebazpena, irailaren 9koa) adierazitako doktrina aipatzen dute.

Horren guztiaren ondorioz «agertutako alderdi hau -jarraitzen du- egoera sinestezin batean murgilduta dago: bi administrazio desberdinek egindako ikuskapen eta egiaztapeneko bi jarduketa,aldi berean egin ez direnak, eta zerga, zerga-egitate eta epealdi beraren bigarren likidazio bat, hori beste administrazio baten aurrean aitortu eta ordaindu bazen ere. Hori guztia, jakina, zuzenbidearen aurkakoa eta Euskadiko Kontzertu Ekonomikoaren espirtuaren aurkakoa da; zerga-araudi eta doktrina horrek, izan ere, xedatu egiten du ikuskapenak egiteko eskumen bakarra egotea eta zerga-egitate bera bitan ez kargatzea, zuzenean edo zeharka, ezarpen berarengatik, eta are gutxiago zerga berarengatik».

9.- Ez ZAEAk eta AFAk ez zuten alegaziorik aurkeztu horretarako eman zitzaien epean.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

10.- Prozedura azaroaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen araudian xedatutakoaren arabera izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arabako Foru Aldundiak aurkeztu dio gatazka Arbitraje Batzordeari, eta eskatu dio ebazteko ZAEAk eskumena zuen 1. ENTITATEAREN aurka egindako jarduketak egiteko (egiaztapen mugatuko bi prozeduratan egin ziren horiek, 2013ko urriaren 15ean hasita, 2009 eta 2010eko ekitaldietako sozietateen gaineko zergari eta 2009, 2010 eta 2011ko balio erantsiaren zergari buruz), bai eta 2015eko martxoaren 16an eta apirilaren 14an jakinarazitako behin-behineko likidazioak emateko ere (likidazio horiek sozietateen gaineko zergaren 2009 eta 2010eko bi zergaldiei eta aipatutako 2009, 2010 eta 2011ko ekitaldietako hilabeteko epealdiei buruzkoak ziren). Aipatu beharra dago 2015eko martxoaren 3an [hau da, egiaztapen mugatuko prozedura abiarazi (2013ko urriaren 15a) eta urte eta erdi geroago eta aipatutako behin-behineko likidazioak jakinarazi baino pixka bat lehenago (2015eko martxoaren 16a eta apirilaren 14a)], Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziak berak AFAREN Tributuen Ikuskapen Zerbitzuari eskatu ziola enpresak 2009an, 2010ean eta 2011n izandako operazioen bolumena egiaztatzeke, bai eta administrazio bakoitzari BEZ eta sozietateen zergaren alorrean tributatu beharreko ehunekoak zehazteko ere, horrela foru-aldundiaren arlo horretako eskumen eksklusiboa aitortuz [Cfr; 15/2012 ebazpena, azaroaren 29koa, 23/2010 espedientea, 7. oinarria, oraingo gatazka honetan izandakoaren antzeko jarduketaren sekuentzia baterako].

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

2.- Alderdiek aipatu ez duten gaia izan arren, Arbitraje Batzorde honek puntu honetan egin behar duen lehen lana gatazka epe barruan aurkeztu den ala ez ebaztea da, horretarako abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako araudiaren (EIABA) 13. artikuluan horretarako xedatutakoaren arabera, eta espedientean jasotako gertakari, jarduketa eta judizio-elementuen arabera.

Gai horri dagokionez, honako hau ezartzen du EIABaren 13. artikulua:

«1. Gatazka onartzeko eskakizun moduan, beharrezko izango da, gatazka aurkeztu baino lehenago, bere burua eskuduntzat jotzen duen tributuzko administrazioak eskugabe irizten dionaren inhibizioa eskatu izana, horrela bere eskumena erreklamatzuz, eta azken administrazio horrek errekerimendua errefusatu izana, eta bere eskumenean berrestea esanbidez nahiz isilbidez. Aipatutako errekerimendu hori, gehienez ere, bi hilabeteko epean egingo da, bere burua eskuduntzat jotzen duen administrazioak bere iritziz Kontzertu Ekonomikoan ezarritako lotura-puntuak urratzen duen egintza edo egintzak ezagutzen dituen datatik kontatzen hasita.

Errekerimendu-idatzian, argi eta garbi zehaztuko dira gatazkaren gai diren egintzak, bai eta zuzenbideko oinarriak ere.

(...)

2. «Gatazkak, hain zuzen ere, hilabeteko epean sustatuko dira, aurreko paragrafoan aipatzen den esanbidezko edo isilbidezko berrespenetik kontatzen hasita, Arbitraje Batzordeko buruari zuzendutako idatzi baten bidez (...)».

Gatazka abiarazteko, beraz, denborazko baldintza bikoitz eta elkarren ondoko bat gertatu behar da, aurretik eta era metatuan. Gatazka

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

planteatzeko idazkian, AFAk adierazten du «gatazka hau Arbitraje Batzordearen araudiaren 13.2 artikuluan aurreikusitako hilabeteko epean aurkeztu da» (laugarren oinarria); alabaina, ez da ezer esaten manu horren 1. zenbakian lehenago ezartzen den denborazko baldintzaz, hots: inhibizio-eskaria «*gehienez ere* bi hilabeteko epean aurkeztea, bere burua eskuduntzat duen administrazioak *bere ustez* Kontzertu Ekonomikoan ezarritako lotura-puntuak urratzen dituzten jarduketan berri duenetik zenbatuta».

Ezin da alde batera utzi denborazko aurreneko baldintza hori, bigarrena baldintzatzen baitu eta, horrek bezala, nahitaez bete beharrekoa baita eta, ondorioz, xedaezina da eskumenen inguruko gatazka positiboak sustatzen dituzten administrazioentzat eta, nola ez, baita horiek ofizioz bada ere aztertzeko betebeharra duen Arbitraje Batzorde honentzat ere. Izan ere, Batzorde honek «Zuzenbidearen arabera ebatzi behar ditu (...) espedientean jasotako gai guztiak, gatazkako alderdiek edo interesdunek planteatu badituzte edo ez (...)» (Kontzertu Ekonomikoaren 67. artikulua).

Ez dagokio Arbitraje Batzorde honi gatazka honen administrazioa ordezteko edo haren lekuan jokatzeko «Kontzertu Ekonomikoan ezarritako lotura-puntuak urratzen dituen (...) gertakaria edo gertakariak» noiz izan ziren zehazteko, erregelamendu-mailako arauak bere eskumenak urratu direla sentitzen duen zerga-administrazioaren «*iritziaren*» esku uzten baitu gai hori espresuki, inhibizioak eskatu ondoren. Eskumenen injerentzia hori eragin duen ekintza edo jarduketa zehaztutakoan ebatzi beharko da zein den «bere burua eskuduntzat duen administrazioak horren berri izan zuen» eguna, hortik aurrera zenbatu behar baita inhibizio-eskaera formulatzeko *gehieneko* bi hileko epea.

3.- AFAk gatazka aurkezterakoan adierazten duenez, ZAEAk egiaztapen mugatuko jarduketak egin zituen entitatearekin, aipatutako zerga eta ekitaldiei dagozkienak, 2013ko urriaren 15ean bi zerga-prozedura abiaraziz [«datuak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

hartze hutsaren aldean oso ondore desberdinak dituzte»- esaten da], bi jakinarazpenen bidez. Horien edukia jaso dugu gorago, ebazpen honen 2. aurrekariaren b) letran.

AFAk ikuskapen-eskumenak zehazten dituzten Kontzertu Ekonomikoaren manuak gogora ekartzen ditu ondoren, hala sozietateen gaineko zergari (19.Bat artikulua) nola BEZari dagokionez (29.Sei artikulua), eta segidan 2006ko maiatzaren 18an ZAEAk, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako hitzarmena aipatzen du, zehazkiago, «tributuen kontrolari eta akta bakarrei buruzko lantaldearen ondorioak» dokumentuaren 4. atala, «operazioen bolumenaren kontrola»ri buruzkoa. Horren arabera:

«Ikuskapen-eskumenik gabeko Administrazioak txostena bidaliko dio eskudunari, zergadunaren inguruan lortutako datuekin, horretarako beharrezkoak diren datuak hartzean datzan jardueraren bidez».

Aipatutako arauak eta hitzarmenak oinarri hartuta, Arabako Foru Aldundiak «eskumenik gabeko administrazioak egindako jarduketara» aztertzen du (bigarren oinarria), eta salatzen du «ZAEAk 1. ENTITATEAN hasitako egiaztapen mugatuko prozedurak eta prozedura horiei lotuta jakinarazi diren likidazioek eskumenak gainditzen dituzte; izan ere, ZAEAk ez du eskumenik entitate horretan ikuskapenak egiteko BEZaren eta sozietateen gaineko zergaren alorrean, Kontzertu Ekonomikoaren 29.Sei eta 19.Bat artikuluen arabera (...)».

«Ildo horretan, -gaineratzen du, segidan, Foru Aldundiak- ZAEAk entitateak lurralde erkidean operazioak egin zituela pentsatzeko zantzuak bazituen eta, ondorioz, adierazitako operazioen bolumena egokia ez bazen, Arabako Foru Aldundiari eskatu behar zion operazioen bolumenaren ehunekoa egiaztatzeko, administrazio horrek baitu horretarako eskumena, printzipioz. Edonola ere, ez

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

zuten egiaztapen-prozedura abiarazi behar, 2013ko urrian egin zuen bezala, eta ez zuen likidaziorik egin behar egoera erregularizatzeko asmoz.

Aurrerago, honako hau dio AFAk: «1. ENTITATEARI aipatutako zerga eta ekitaldien ondorioz egindako likidazioak ZAEAk 2013ko urriaren 15ean hasitako egiaztapen mugatuen ondorio dira. Alabaina, ZAEAk ez du horretarako eskumenik, enpresak aurkeztutako adierazpenen arabera, eta hortaz ezeztatu egin behar dira, ZAEAk egindako egiaztapenek ez baitute ondorioz, aipatutako arrazoia dela eta (...)» (Hirugarren oinarria, *in fine*).

Planteamendua bukatzeko, AFAk Arbitraje Batzordeari eskatzen dio, errekurso-idazkiaren amaieran aurkeztutako gatazka onartu eta ebazteko eta ZAEARI agintzeko «1. ENTITATEAN egin dituen jarduketak eteteko, 2009 eta 2011 arteko BEZari eta 2009 eta 2010eko sozietateen gaineko zergari dagokienez, eta ZAEAk burututako likidazioak ezeztatzea, zerga eta ekitaldi horiei dagozkienak, likidazioak eragin zituzten *egiaztapenak egiteko eskumengabetasunagatik*».

4.- Beste ebazpen batzuetan esan dugunaren harira (besteak beste, 15/2012 Ebazpena, azaroaren 29koa, 23/2010 espedientea; 13/2013 Ebazpena, ekainaren 28koa, 29/2010 espedientea; eta 17/2013 Ebazpena, irailaren 9koa, 21/2010 espedientea), ez da zaila AFArekin ados egotea, *a limine*, esaten duenean ZAEAk 2013ko urriaren 15ean 1. ENTITATEAN abiarazi zituen egiaztapen mugatuko prozeduretan egindako jarduketak (dokumentazio- eta informazio-eskaerak) (Cfr. *supra*, 2. aurrekaria, b letra) «datuak hartze hutsetik» haratago joan zirela, hori izanik ikuskapen-eskumenik gabeko administrazioak egin zezakeen jarduketa bakarra, administrazio eskudunari txosten bat bidaltzeko eta horretan lurralde bakoitzeko operazioen bolumena egiazta zezan eskatzeko; izan ere, «xedeak hartzea baino ez bazen, horrela [Arabako Foru Aldundiari, kasu honetan] zegokion txostena bidaltzeko, ezin da inolaz ere justifikatu konpainiari eskatzea [...] zergadunak beste administrazio batzuen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

aurrean aurkeztu dituen zerga-aitorpenen kopiak ere, eta are gutxiago lurralde [erkidean, gure kasuan] egindako operazioen xehetasuna» (Auzitegi Gorenaren 2015eko maiatzaren 11ko epaia, 441/2013 errekurtsioa, zuzenbideko hirugarren oinarria).

Kontzertu Ekonomikoaren 19. (sozietateen gaineko zergaren ikuskapena) eta 29. (balio erantsiaren gaineko zergaren kudeaketa eta ikuskapena) artikuluetan xedatutakoaren arabera, erakundeak zerga-helbidea Araban du, (2008), 2009 eta 2010eko sozietateen gaineko zergaren aitortpenak eta 2009 eta 2011 arteko (bai eta 2008koa ere) BEZaren aitortpenak aurkeztu zituen, horietan guztietan 7 milioi eurotik gorako operazioen bolumena jakinaraziz, eta adieraziz operazioen % 100 foru-lurralde horretan egin zirela. Hortaz, ikuskapen-eskumena eta, ondorioz, horri lotuta dagoen operazioen bolumena zehazteko eskumena (Cfr. 17/2013 ebazpena, irailaren 9koa, 21/2010 espedientea, 5. oinarria, Auzitegi Goreneko hirugarren salak berretsia, 2015eko maiatzaren 11ko epaian, 441/2013 espedientea) Arabako Foru Aldundiari zegokion, ezbairik gabe.

Hala da, berriki aipatu dugun 17/2013 ebazpenean jaso genuen moduan: «hala sozietateen gaineko zergaren nola balio erantsiaren gaineko zergaren kasurako, Kontzertu Ekonomikoak funtsezko bi arau ezartzen ditu espresuki (...):

Bat, ikuskapen-eskumena duen Administrazio bakar bat dagoela (...). Ez da beti horrela izan, 2003ko urtarrilaren 10eko Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenaren Epaiak adierazi bezala (2008ko otsailaren 5eko Auzitegi Gorenaren Epaiak berretsia); izan ere, hasieran, Ekonomia Itunak negozio-zifra erlatiboaren sistema ezartzen zuen. Horren ondorio saihestezina zen erregimen horren menpeko egiaztapena eta ikerkuntza bi Administrazioei zegokiela (maiatzaren 13ko 12/1981 Legeak emandako idazketako Ekonomia Itunaren 22.3 artikulua), baterako ikuskapen-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

jardueraren urteko planen prestaketa eta, beste kasu batean, egindako akten lekualdaketa edota baterako egiaztapena kaltetu gabe. Egoera hori abenduaren 26ko 27/1990 Legea indarrean sartu zen arte mantendu zen; horrek Ekonomia Ituna aldatzen du partzialki).

Eta bestea, Administrazio bakoitzari tributatu beharreko bolumena eta tributazio-proporzioa erabaki ditzakeen bakarra ikuskaritzako eskumena duen Administrazioa dela (...). Berrito ere, ikuskapen-eskumena Administrazio baten alde aitortzen da, monopolio-izaerarekin» (5. oinarria).

Horixe bera onartzen du Estatuaren Zerga Administrazioak berak AFaren inhibizio-eskaerari emandako erantzunean, hauxe esanda: «inoiz ez da zalantzan jartzen AFA dela ikuskapen-eskumena duen Zerga Administrazioa, ez eta hark duela lurralde bakoitzean egindako operazioen bolumena egiaztatzeko eskumena duena ere».

5.- Esandakoa ikusirik, AFAk uste zuen Estatuko Zerga Administrazioak eskumenik gabe jardun zuela; izan ere, adierazten dutenez, «donola ere, ez zuten egiaztapen-prozedura abiarazi behar, 2013ko urrian egin zuen bezala, eta ez zuen likidaziorik egin behar egoera erregularizatzeko asmoz»; eta «ZAEAk egindako likidazioak 2013ko urriaren 15ean hasitako egiaztapen mugatuen ondorio dira. Alabaina, ZAEAk ez du horretarako eskumenik, enpresak aurkeztutako adierazpenen arabera»; eta Aldundiaren asmoa zen «ZAEAk burututako likidazioak ezeztatzea, zerga eta ekitaldi horiei dagozkienak, likidazioak eragin zituzten egiaztapenak egiteko eskumengabetasunagatik ». Hortaz, ondorioztatzen da Aldundiak berak uste zuela «Kontzertu Ekonomikoan ezarritako lotura-puntuak urratu zituzten ekintza edo ekintzak» (EIABaren 13.2 artikulua) izan zirela Euskadiko ZAEaren Ordezkaritza Bereziko Ikuskaritzako Eskualdeko Sailaren eskualdeko ikuskatzaile laguntzaileak 2013ko urriaren 15ean 1. ENTITATEan abiarazi

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

zituen egiaztapen mugatuko prozeduren hasierako idazkiak, idatziz jaso diren dokumentazio- eta informazio-eskarien irismenarekin eta edukiarekin (Cfr; 2. aurrekaria, b letra).

6.- kasu honetan, are argiagoa da bere burua eskuduntzat zuen AFAk eskumen hori urratzen ari zen ZAEAREN jarduketaren berri izan zueneko momentua, Foru Aldundiak berak onartzen baitu entitateak 2014ko abuztuaren 8an aurkeztutako idazkian jakinarazi zitzaiola Euskadiko Ordezkaritza Bereziaren Enpresa Handien Kudeaketa Unitateak lurralde erkideko operazioen bolumen posibleari buruzko informazioa eskatu ziola aipatutako zerga eta ekitaldiei buruz, eta idazki horrekin batera aurkeztu zirela «egiaztapen mugatuko prozeduraren hasieraren berri emateko bi jakinarazpen (..) biak 2013ko urriaren 15ekoak» (Cfr; *supra*, 2. aurrekaria, h letra). Agerikoa da, beraz, 2014ko abuztuaren 8ko idazkiaren ondoren, AFAk benetan eta zehazki zekiela ZAEA tributuen arloan eskumenik gabe jarduten ari zela (2013ko urriaren 15ean abiarazi baitzituen egiaztapen mugatuko bi prozedurak, berriz diogu, lehen aipatutako dokumentazio- eta informazio-eskaeren eduki eta xedearekin) eta, Aldundiak dudarik gabe bazekiela bere ikuskapen-eskumena erabatekoa eta eskusiboa zela eta beharrezkoa zela bizkor erantzutea Estatuko Administrazioaren injerentzia horren aurrean, epeak luzaezinak direlako.

Data horretatik (2014ko abuztuaren 8a) hasi behar zen zenbatzen, beraz, inhibizio-eskaera formulatzeko bi hileko epea (2014ko urriaren 8an amaitu zen), eta epez kanpoko izan zen AFAk 2015eko apirilaren 23ra arte igorri ez zuen informazio-eskaria.

7.- Kontuan izanik inhibizio-eskaera aurkezteko bi hileko epea luzaezina dela eta izaera preklusiboa duela eskumen-gatazka positiboen kasuan [hau da, gatazka aurkezteko hilabeteko epea zenbatzen hasteko ezespeneren edo inhibizio-eskaerari ez erantzunez egiten den ezespeneren tazituaren eguna kontuan hartzen denean, ondorioz, horren formulazio egokia denean (Cfr; 17/2012

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

ebazpena, azaroaren 29koa, 17/2010 espedientea, 4. oinarria)], Auzitegi Gorenaren hirugarren salaren 2012ko ekainaren 7ko epaiak (9/2011 errekurtsua) zuzenbideko seigarren oinarrian inplizituki onartu zuenez, beharrezkoa da AFak sustatutako gatazka ez onartzea, ZAEari eginiko inhibizio-eskaera epez kanpoko delako. Horren ondorioz, eginezina da Foru Aldundiak aurkeztutako atzera egiteko dokumentua, eta galarazi egiten digu planteatutako gaiaren funtsa aztertzea.

8.- Era beran, galarazi egiten digu, arrazoi berarengatik, entitateak bere alegazio-idazkian adierazten duen kexa azertu eta horri erantzutea (Cfr; *supra*, 8. aurrekaria). Esaten dutenez, «ZAEak egindako egiaztapen eta ikuskapenak eta igorritako likidazioak gauzatzeko eskumenik ezak egindako guztiaren deuseztasuna ekar lezake, bai eta likidatu nahi diren BEZ eta sozietateen gaineko zergaren epealdi batzuen preskripzio posiblea (...)»; adierazpen hori jasota utzi dugu, baina Arbitraje Batzorde honek ezingo luke inola ere horri buruzko iritzirik eman, horretarako eskumenik ez duelako (Cfr; 17/2015 ebazpena, urriaren 19koa, 15/2011 espedientea, 13. oinarria).

Esan dezagun, amaitzeko, sozietateak bizi duen «egoera sinestezinak» [«bi administrazio desberdinek egindako ikuskapen eta egiaztapeneko bi jarduketa»ren ondoriozkoak «aldi berean egin ez direnak», bai eta «zerga, zerga-egitate eta epealdi beraren bigarren likidazio bat»en ondoriozkoak ere] ez duela inolaz ere bat egiten Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoaren espirituarekin, baina kasu honetan seguruenik ez zatekeen gertatu ere egingo erakundeak, zeina 2013ko urriaren 15etik eskumenik ez zuen ZAEaren «egiaztapen- eta ikuskapen-jarduketan» pean baitzegoen, 2014ko abuztuaren 8ra arte itxaron izan ez balu zuzenbidearen kontrakoak zirela uste zuen jarduketa horien berri emateko bere ustez eskudun zen Foru Aldundiari. Eta horrekin batera, foru-aldundi eskudunak bizkor erantzun izan

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
33/2015	R1/2017	2017-02-06	Arabako Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Beste Zerga Administrazio baten esparruko erakundeetan egindako ikuskapenak

balio ZAEAREN eskumen-injerentziari, epe barruan Arbitraje Batzordearen araudian horretarako aurreikusita dagoen inbizio-eskaera formulatu izan balu.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

- 1.- Ez onartzea Arabako Foru Aldundiak aurkeztutako 33/2015 gatazka, epez kanpokoa baita, Arbitraje Batzordearen araudiaren 13.1 artikuluari jarraituta.
- 2.- Ebazpen hau jakinaraztea Euskadiko eskualdeko auzitegi ekonomiko-administratiboari.
- 3.- Hitzarmen hau jakinaraztea Arabako Foru Aldundiari, Zerga Administrazioako Estatu Agentziari eta 2. ERAKUNDEARI.